**2018KO EKAINAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**
**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DIA 27 DE JUNIO DE 2018**

BERTARATU DIREN JAUN-ANDREAK / SEÑORES ASISTENTES:

BATZARBURUA / PRESIDENCIA:

D. AITOR EGURROLA MENDIOLEA jn. (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Dª IRATI GONDRA MARTINEZ and. (EAJ-PNV)
Dª MALEN ICHAZO MENDIZABAL and. (EAJ-PNV)
D. ANDONI LONGARTE ARZANEGI jn. (EH BILDU)
D. PATXI FERNANDEZ UGALDE jn. (EAJ-PNV)
D. JUAN IGNACIO VILLANUEVA ALONSO jn. (EAJ-PNV)
Dª MAITEDER BADIOLA HORMAETXEA and. (EAJ-PNV)
D. JOSE JAVIER ARAGUES DE ORUE jn. (EH BILDU)

Bertaratu ezina azaldu du: GARAITZA ITURREGI UGARTEMENDIA and. (EH BILDU)

IDAZKARIA / SECRETARIO:

D. VICTOR AGINAGALDE ZALLA jn.

Mundakako Elizatean, 2018ko ekainaren 27. eguneko 09:00etan, Aitor Egurrola Mendiolea alkate jaunaren aurrean, Idazkaria naizen neronen laguntzarekin, Udaletxeko Batzar aretoan elkartu dira Udalbatzaren gehiengoa osatzen duten idatziz adierazitako jaun-andre zinegotziak, aldez aurretik ohiko bilkura egiteko haiei guztiei egindako deialdiari erantzunez, horretarako osatutako eguneko gai-zerrendaren arabera.

En la Anteiglesia de Mundaka, siendo las 09:00 horas del día 27 de junio 2018, ante el Sr. Alcalde D. Aitor Egurrola Mendiolea, y asistidos por mí el Secretario, se reúnen en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial los Sres. Concejales anotados al margen y que constituyen la mayoría de la Corporación, al objeto celebrar la sesión ordinaria para la que previamente habían sido convocados y bajo el orden del día cursado al efecto.

Batzarburuak ekitaldiari hasiera emanda, honako erabaki hauek hartu dira:

Abierto el acto por la Presidencia se adoptan los siguientes acuerdos:

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTA ONESTEA, EGOKIA BALDIN BADA.**

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR.**

2018ko maiatzaren 30ean egindako ohiko bilkura saioko aktaren zirriborroa Osoko Bilkurako kideek onestea proposatuta, aho batez onetsi da.

Sometido el borrador de acta de la sesión ordinaria celebrada el día 30 de mayo de 2018 a la aprobación de los miembros del Pleno, es aprobada por unanimidad.

**2.- 2017KO DOIKUNTZA PLANAREN JARRAIPENEKO TXOSTENA.**

**2.- INFORME DE SEGUIMIENTO DEL PLAN DE AJUSTE DE 2017.**

Alkate jaunak eskatuta, Idazkariak osoko bilkurako kideei jakinarazi die Bizkaiko Foru Aldundiko Zerbitzu, Udal Harreman eta Larrialdien Zuzendaritza Nagusiak aldeko txosten bat egin duela, 2013ko ekainaren 12ko 6/2013 Foru Arauaren arabera, Mundakako Udalak onetsita indarrean dagoen Doikuntza Planari 2017ko ekitaldian egindako jarraipenari dagokionean. Txosten hori Mundakako Udalak 2018ko apirilaren 26an (10.750 sarrera zk.) osatutako dokumentazioan oinarrituta osatu da. Aldeko txostena jasotzen duen Foru Arauak, 2017ko aurrekontuaren likidazioa eta Kontu-hartzailetzak egindako txostena aztertu ostean, ondorio gisa adierazten du Mundakako Udalaren 2017ko likidaziotik eratorritako aurrezte garbia positiboa

A requerimiento del Sr. Alcalde, el Secretario informa a los miembros del pleno que la Dirección General de Servicios, Relaciones Municipales y Emergencias de la Diputación Foral de Bizkaia, ha emitido un informe favorable en relación al seguimiento en el ejercicio de 2017 del Plan de Ajuste vigente aprobado por el Ayuntamiento de Mundaka al amparo de la Norma Foral 6/2013, de 12 de junio. Dicho informe se ha emitido en base a la documentación remitida por el Ayuntamiento de Mundaka con fecha 26 de abril de 2018 (nº entrada 10.750). La Orden Foral que recoge el informe favorable concluye tras el análisis de la liquidación del presupuesto de 2017 y el informe remitido por Intervención, que el ahorro neto que se deriva de la

dela, Doikuntza Planean aurreikusitakoa baino handiagoa, eta gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakina ere positiboa dela.

liquidación 2017 del Ayuntamiento de Mundaka es positivo y superior a lo previsto en el Plan de Ajuste así como que el Remanente de Tesorería para gastos generales es positivo.

Azalpena amaitutakoan, José Javier Aragüések hartu du hitza, bilkurako kideei gogoraraziz joan den urtean euren taldeak eskatu zuela egin beharrekoak egiteko Bizkaiko Foru Aldundiarekin 2013tik 2023ra bitarteko indarraldia izango duen Doikuntza Planaren edukia berriz negoziatu ahal izatea. Lehenengo bost urteetako aldeko eboluzioa ikusita, berriz negoziatzeko eskaera berretsi du orain.
Alkate jaunak berriz negoziatzea proposatzeko Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanetan jartzeko hitza eman du.

Concluida la exposición toma la palabra José Javier Aragüés recordando a los asistentes que el pasado año su grupo solicitó que se realizaran gestiones con la Diputación Foral de Bizkaia al objeto de plantear una renegociación de los términos del Plan de Ajuste cuya vigencia se extenderá desde el 2013 al 2023. A la vista de la evolución favorable de los cinco primeros años, reitera la solicitud de renegociación.
El Sr. Alcalde se compromete a contactar con la Diputación Foral de Bizkaia a los efectos de plantear una renegociación.

**3.- ALKATETZAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

155. zenbakitik 183. zenbakira bitarteko alkatetzako dekretuen berri eman da. Osoko Bilkurako kideak jakinaren gainean gelditu dira.

**3.- DACIÓN DE CUENTA DE DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de los decretos de alcaldía números 155 al 183. Los miembros del Pleno se dan por enterados.

**4.- GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Andoni Longarte zinegotziak hartu du hitza, gogoraraziz aurreko Osoko Bilkuran Alkate jaunak adierazi zuela Bilduko talde

**4.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Interviene el concejal Andoni Longarte recordando que en el Pleno anterior el Sr. Alcalde comentó que el grupo político de Bildu había votado

politikoak Batzar Nagusietan Erreka auzoan etxebizitza sozialen obrak geratzearen aldeko botoa eman zuela, EHUko ikerlari baten txostenaren arabera, inguru horretako leize batean babestutako saguzar espezie bat bizi delako. Adierazpen horren inguruan, Longarte jaunak adierazi du Batzar Nagusietako bere alderdiko kideekin hitz egin dutela horretaz. Hain zuzen, adierazi du Batzar Nagusietan Ingurumeneko batzorde batean aztertu zutela gai hori. Batzorde horretan, Podemos eta Bildu taldeen ekimenez, babestutako saguzar espezie horiek badaudela berresteko aukeraren aurrean, Batzorde burua den Unzueta andreak baieztatu zuen espezie horiek babesteko neurri egokiak hartuko direla.

la paralización de las obras de las viviendas sociales en Erreka en las Juntas Generales debido al informe de un investigador de la UPV que ha detectado la existencia de especies protegidas de murciélagos en una cueva de la zona. En relación a esa manifestación el Sr. Longarte declara que se ha consultado el asunto con compañeros de su partido en Juntas Generales. En concreto, manifiesta que el tema fue tratado en una Comisión de Medio Ambiente de las Juntas Generales. En dicha Comisión, a iniciativa de los grupos de Podemos y Bildu, ante la posibilidad de que se confirme que existen dichas especies protegidas de murciélagos la Presidente de la Comisión, Sra. Unzueta, afirmó que se adoptarían la medidas procedentes de protección de dichas especies.

Horretan oinarrituta, adierazi du haien talde politikoak ez duela inolaz ere obrak gelditzeko eskatu, baizik eta, babestutako espezieak daudela berretsiko balitz, Erreka auzoan etxebizitza sozialak eraikitzeko aurreikusitako lanen eraginez konponezinezko kalteak saihesteko legezko neurriak har daitezela.

En base a ello, declara que en modo alguno su grupo político ha solicitado la paralización de las obras sino que lo que pretende es que en caso de confirmarse la existencia de las especies protegidas se adopten las medidas legales previstas para evitar daños irreversibles como consecuencia de las obras previstas en el barrio de Erreka para la construcción de viviendas sociales.

Aitor Egurrola alkate jaunak erantzun dio Batzar Nagusietako saioen egunkaria kontsultatu duela, gai horri buruz jasotako informazioak

Responde el Sr. Alcalde Aitor Egurrola que ha consultado el diario de sesiones de las Juntas Generales al objeto de

kontrastatzeko asmoz. Kontsulta horretan, gaiari buruzko aipamen orokor bat aurkitu ahal izan du, baina ez Longarte jaunak aipatu duen Batzordearen aktaren edukia. Hori dela eta, denbora eskatu du informazioa eskuratzeko eta eztabaidaren xehetasunak argitzeko.

Kontu horren harira, eta etxebizitza sozialak eraikitzeko VISESArekin sinatutako hitzarmenari dagokionez, Longarte jaunak zalantzak dituela adierazi du haren indarraldiaren inguruan; izan ere, obrak gauzatzen hasteko hitzarmenean aurreikusitako epe guztiak igaro dira dagoeneko. Beste alde batetik, azaldu du prozesua geldituta dagoela Udalak URAri eskatutako txosten batengatik, eta euren taldeak ez duela txosten horren berririk jaso.

Alkate jaunak jakinarazi du URAri txostena eskatu zaiola Visesak etxebizitzak eraikitzeko Oinarrizko Proiektua aurkezteko [redacted] arkitekto aholkulariak idatzitako txostenean oinarrituta. Longarte jaunaren galderari erantzunez, adierazi du txosten hori eta URAri txostena eskatzeko arrazoiak espedientean jasota daudela eta ohiko prozedura jarraitu baino ez dela egin, sektoreko txosten beharrezko hori aurkeztuta eskaera zuzentzeko eskatuz. Hitzarmenaren indarraldiari dagokionez,

contrastar las informaciones recibidas sobre el tema. En dicha consulta ha podido encontrar una alusión genérica de la cuestión pero no el contenido del acta de la Comisión a la que alude el Sr. Longarte. Por ello, solicita tiempo para acceder a la información y aclarar los términos del debate.

Al hilo de la cuestión y en relación al Convenio firmado con VISESA para la construcción de viviendas sociales, el Sr. Longarte plantea sus dudas en relación a la vigencia del mismo por el hecho de que han transcurrido todos los plazos previstos en el convenio para iniciar la ejecución de las obras.Por otra parte, manifiesta que el proceso está paralizado por un informe solicitado por el Ayuntamiento a URA sin que su grupo haya sido informado de dicha solicitud.

Informa el Sr. Alcalde que el informe solicitado a URA se ha realizado en base al informe redactado por la Arquitecta Asesora [redacted] con ocasión de la presentación por Visesa del Proyecto Básico para la construcción de las viviendas. En respuesta a la pregunta del Sr. Longarte manifiesta que dicho informe y las razones por las que se pide el informe de URA figuran en el expediente y no se ha hecho otra cosa que seguir el procedimiento normal solicitando la subsanación de

adierazi du, lanak apirilean hasi ez diren arren, nola Visesak hala Udalak eutsi egin diotela haren indarraldiari, alderdi batzuetan alda badaiteke ere, hala nola, aldez aurretik erroldatzeko gutxieneko aldiei eragiten dietenetan.

la solicitud con la aportación de dicho preceptivo informe sectorial. Por lo que se refiere a la vigencia del Convenio manifiesta que, aunque las obras no se hayan iniciado en abril, tanto Visesa como el Ayuntamiento mantienen su vigencia con independencia de que pueda modificarse en aspectos concretos como los que afectan a periodos mínimos de empadronamiento previo.

Longarte jaunak bere azalpena egiten jarraitu du, eta adierazi du, igerilekua legeztatu ostean, bere taldeak ez dakiela Ondartza auzoko obrak legeztatzeko espedientea zertan den. Esan du Hirigintzako batzordean ez dela prozedura horri buruzko berririk jakinarazten: igerilekua legeztatu da, eta ez da zigor espedienterik zabaldu. Espedientea aztertuta, 2014an hasi zela gogorarazi du. Gaia jorratu zen azkeneko batzordea 2016an elkartu zen. Orduz geroztik, pausoak eman izan dira obrak legeztatzearen inguruan. Esan du badirela legeztatu ez diren 2014ko obrak, eta, legez haiek legeztagarriak izan ala ez izan, bere taldeak legeztatzeko prozedurari eta horretatik erator daitezkeen zigorrei buruzko txosten juridikoa eskatu du. Esan du espedientea ezkutuko obra eta hutsegite larri bezala izendatu zirenetan oinarritu zela. Aholkulari juridikoak ez du inolako txostenik idatzi, eta txosten teknikoa hutsegite

El Sr, Longarte continúa sus intervenciones manifestando que su grupo desconoce lo que ocurre con el expediente de legalización de las obras de barrio de Ondartza tras la legalización de la piscina. Afirma que no se informa en Comisión de Urbanismo sobre dicho procedimiento, se ha legalizado la piscina y no se abren expedientes sancionadores. Examinado el expediente, recuerda que se inició en 2014. La última Comisión en la que se trató el tema se realizo en 2016. Desde entonces se han dado pasos en relación a la legalización de las obras. Afirma que hay obras de 2014 que no han sido legalizadas y, con independencia de que legalmente resulten o no legalizables, su grupo solicita un informe jurídico sobre el procedimiento de legalización y las sanciones que pueden derivarse del mismo. Afirma que el expediente se inició en base a lo que se definía como obras

larria izatetik hutsegite arina izatera igaro da. Horregatik, [redacted] aholkulari juridikoari txosten bat eskatu diote, legeztatze-espedientearen egoeri buruzkoa, eta zigor espedienterik ez zabaltzeko arrazoiaren inguruan. Gogorarazi du espedientea zabaldu zenean behartze-zigorrak ezartzeari buruzko oharra eman zitzaiola sustatzaileari. Bukatu du esanez dagokien baimenik gabeko irregulartasun multzo bat izan dela hor.

clandestinas y una falta grave. El asesor jurídico no ha redactado ningún informe y el informe técnico ha pasado de falta grave a falta leve. Por ello, solicitan un informe del Asesor Jurídico [redacted] sobre la situación del expediente de legalización y la razón de que no se haya abierto un expediente sancionador. Recuerda que cuando se abrió el expediente se apercibía al promotor de la imposición de multas coercitivas. Concluye afirmando que ha existido un cúmulo de irregularidades que no disponen del correspondiete permiso.

Aitor Egurrola alkate jaunak erantzun du, eta adierazi du igerilekua legeztagarria zela baieztatu duen arkitekto aholkulariaren txosten batean oinarrituta legeztatu dela. Beste alde batetik, zigor espedientea aparte doa, bereizita. Longarte jaunak ihardetsi du esanez haren talde politikoak ez duela ulertzen prozesua nolatan ari den gauzatzen txosten juridikorik gabe, nahiz eta gobernu taldeak berak legez kanpokotzat jotako obrak hainbeste izan. Esan duenez, nolakoa zen jakin gabeko legez kanpoko obra batetik txoko bat zirudien eraikin batera igaro dela; ibili-ibilian, legeztatzeko azkeneko proiektuan nekazaritzako lanabesak eta makinaria txikia gordetzeko etxe gisa izendatu da. Azken proiektu horren informazio

Responde el Sr. Alcalde Aitor Egurrola que la piscina se ha legalizado en base a un informe de legalidad de la Arquitecta Asesora que afirma que es legalizable. Por otra parte, el expediente sancionador va aparte. Replica el Sr. Longarte que su grupo político no entiende que el proceso se esté realizando sin informe jurídico pese al cúmulo de obras ilegales definidas así por el propio grupo de gobierno. Afirma que se ha pasado de una obra ilegal que no se sabía bien en qué consistía a una construcción que parecía ser un txoko hasta que en el último proyecto de legalización se ha denominado como una casa de aperos y guarda de pequeña maquinaria. Solicita que este último proyecto sea informado jurídicamente.

juridikoa emateko eskatu du.

Alkate jaunak ihardetsi du, eta esan du igerilekua soilik legeztatu dela; gainerako guztia izapideak egiteko espedienteak emango duenaren zain dago.

Replica el Sr. Alcalde afirmando que solo se ha legalizado la piscina, el resto queda pendiente de lo que resulte en el expediente en tramitación.

Jarraian, José Javier Aragüések hartu du hitza, eta informazioa eskatu du Goiko kalea 1, 1.an kokatuta dagoen udal etxebizitzaren une honetako egoerari buruz, alokatuta zeukan medikua erretiratu ostean. Alkate jaunak erantzun du esanez Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri direla etxebizitza hori Bizigune udal programan txertatzeko; programa horretan Udala titular duten etxebizitzak bildu eta, Alokabide elkarte publikoaren bitartez, alokairu askeko merkatura sartu ezin duten pertsonen esku jartzea da helburua. Aipatutako harremanen ondorioz, informazioa bidali diote Udalari eman beharreko pausoen inguruan, bai eta Udalaren eta Alokabideren betebeharrak eta eskubideak jasotzen diren hitzarmen-zirriborro bat ere. Gaur egun, Alokabidek higiezinaren egoera ikuskatzeko zain daude, eta ikuskatze horretan oinarrituta finkatuko dira konponketen, kostuen eta abarren inguruko erabakiaren xehetasunak.

Seguidamente toma la palabra José Javier Aragüés solicitando información sobre la situación actual de la vivienda municipal sita en Goiko kalea 1-1º tras la jubilación del médico que la tenía arrendada. Responde el Sr. Alcalde que se han realizado contactos con el Gobierno Vasco para incorporar la vivienda al programa Bizigune Municipal cuya finalidad es captar viviendas de titularidad municipal y ponerlas, a través de la sociedad Pública Alokabide, a disposición de personas que no puedan acceder al mercado libre de alquiler. Como consecuencia de los contactos realizados se ha remitido al Ayuntamiento información sobre los pasos a seguir junto a un borrador de Convenio donde se recogen las obligaciones y derechos del Ayuntamiento y Alokabide. Actualmente se está a la espera de la realización de una inspección del estado del inmueble por parte de Alokabide en base al cual se fijaran los términos del acuerdo en relación a reparaciones, costes etc.

Aragüés jaunak jarraitu du pilotalekuaren erabilerari buruzko kexa helaraziz. Hain

Continúa el Sr. Aragüés trasladando la queja recibida en torno a la utilización del

zuzen, partida jokatu ahal izateko umeak kanporatzen dituzten pertsona heldu batzuen jokabideari dagokio kexa. Alkate jaunak erantzun du betiko arazoa dela, une oro udaltzain bat bertan ez badago konpontzeko oso zaila dena.

frontón. En concreto se refiere a actitudes de ciertas personas mayores que expulsan a los niños para jugar su partido. Responde el Sr. Alcalde que se trata de un problema de siempre que es muy difícil solucionar si no coincide en cada momento la presencia de algún municipal.

Aragüés jaunak hartu du hitza, eta Txorrokopuntan kokatutako dutxen funtzionamendu txarraren arazoa azaldu du berriro. Villanueva jaunak erantzun du dutxetako bat baliogabetuta dagoela, ura zurezko oinarritik kanpora botatzen duelako, inguruan lokatza osatzea eraginez. Arazo horretarako konponbide bat kudeatzea erabaki da.

Retoma la palabra el Sr. Aragües trasladando nuevamente el problema del mal funcionamiento de las duchas situadas en Txorrokopunta. Responde el Sr. Villanueva que una de las duchas está anulada porque tira el agua fuera de la base de madera provocando la formación de barro en la zona. Se acuerda gestionar una posible solución al problema.

Aragüés jaunak jarraitu du eskatuz herriguneko hainbat eremutan kutxatiletan sortzen diren zaratak gutxitzeko neurriak hartzeko. Gai beraren inguruan, Longarte jaunak Juan Bautista Longa kaleko lau kutxatilak egoera txarrean daudela jakinarazi du, sortzen duten zaratagatik ez ezik, baita apurtzeko zorian daudelako ere.

Continúa el Sr. Aragues solicitando que se adopten medidas para limitar los ruidos que generan las arquetas en distintas zonas del casco urbano. En relación al mismo tema, el Sr. Longarte informa de la mala situación en la que se encuentran cuatro arquetas de la calle Juan Bautista Longa no solo por el ruido que producen sino porque también están a punto de romperse.

Uretako jardueren arloan udalerrian zenbait enpresak gauzatzen dituzten hainbat eratako jarduerak direla eta, Aragüés jaunak zehaztu du Mundakako herritarrentzako deskontuak egin beharko liratekeela. Irati Gondrak

Ante las distintas actividades realizadas por diversas empresas en el municipio en materia de actividades náuticas, el Sr. Aragüés señala que se deberían contemplar descuentos para los vecinos de Mundaka. Responde

erantzun du adieraziz egindako eskaera aintzat hartu dela eta datorren urtean indarrean sartzen saiatuko direla, aurtengo ekitaldian ezin izan baita garaiz landu.

Irati Gondra que la solicitud realizada se tiene en consideración y se intentará ponerla en vigor en el próximo año dado que no ha podido ser trabajada a tiempo en este ejercicio.

Aragüés jaunak aurreko urteetan bezala aurrekontuak osatzeko parte-hartze prozesu bat bultzatzeko eskatuz bukatu du, neurri batean behintzat, Mundakako herritarrek euren ekarpenak egiteko aukera izan dezaten, beste udalerrietan egiten den bezala. Horretarako, parte-hartze ereduei buruzko informazioa ekarriko duela hitz eman du, zehatzago, Getxon sustatutako parte-hartze eredua aipatuta.

Termina el Sr. Aragüés solicitando como en años anteriores que se impulse un proceso participativo en la elaboración de los Presupuestos de forma que, al menos en parte, los vecinos de Mundaka puedan realizar sus aportaciones tal como se hace en otros municipios. Para ello se compromete a aportar información sobre modelos participativos, en concreto se refiere a modelos participación impulsados en Getxo.

Longarte jaunak hartu du berriz ere galdera eta eskaeretako txanda, eta informazioa eskatu du Talaiako txosna urbanizatzeko eta eraikitzeko prozeduraren gaur egungo egoerari buruz. Haren EH BILDU taldearen proposamena berretsi du berdegunea mantentzeko, iruditzen zaielako badaudela konponbide teknikoak hori mantentzea eta gimnasioa iragazgaiztea bateragarri bihurtzeko, hormigoiarekin ordezka dezaten ekidinez. Kontu horren harira, txosnaren eraikuntza eta kudeaketa lizitatzearen egoerari buruzko informazioa eskatu du.

Retoma el turno de ruegos y preguntas el Sr. Longarte solicitando información del estado actual de los procedimientos de urbanización y construcción del txiringuito de la Atalaya. Se reafirma en la propuesta de su grupo EH BILDU en mantener la zona verde por considerar que hay soluciones técnicas que pueden compatibilizar dicho mantenimiento con la impermeabilización del gimnasio y evitar que sea sustituida por hormigón. Al hilo de la cuestión, solicita información sobre el estado de la licitación de la construcción y gestión del Txiringito.

Aitor Egurrolak erantzun

Responde Aitor Egurrola

du, eta adierazi du urbanizatzeko obrak nahiz txosna eraiki eta haren emakida esleitze independente bitartez egingo direla, nahiz eta gauzatze lanak koordinatuta egin beharko diren, esparru berari eragiten baitiete. Bi jardunbide horiek legeztatzea ere koordinatu egingo da, eta, txosnari dagokionez, zehaztu du kontsultak izan direla haien lizitazioan parte hartzeko interesa erakutsiz. Urbanizatzeko proiektuari dagokionean, adierazi du proiektua jendaurrean jakinarazteko epealdian alegazio bat aurkeztu duela EAJ-PNV taldeak, eta bertan berdegunea mantentzeko eskatzen duela. Esan duenez, aurkeztutako alegazioa bat dator BILDUko udal taldea behin eta berriz eskatzen ari denarekin. Gogorarazi du idatzitako proiektuaren arabera, berdegunea ordezkatzen duen hormigoizko oinarria gainazal horren azpian kokatuta dauden arrauneko instalazioak iragazgaiztearekin lotutako irizpide teknikoei dagozkiela. Berdegunea mantentzeko, drainatze-sistema bat gauzatu behar da, eta altuera 50en bat zentimetro handitu. Proiektuan aurreikusitako irizpideez gain, kontsultak egin zaizkie beste teknikari batzuei, eragin txikiagoko beste ordezko alternatiba bat aurkitzeko aukera bat aztertzeko. Izandako harremanen ostean, egiaztatuta dago berdegunea mantentzeko

que las obras de urbanización y la construcción y concesión del Txiringito se realizaran por procesos de adjudicación independientes aunque su ejecución debe ser coordinada por afectar al mismo ámbito. La licitación de ambas actuaciones también será coordinada y señala que por lo que se refiere a la concesión del Txiringito se han realizado consultas mostrando interés en participar en su licitación. Por lo que se refiere al proyecto de urbanización, informa que en el periodo de información pública del proyecto se ha presentado una alegación por parte del EAJ PNV en la que se solicita el mantenimiento de la zona verde. Afirma que la alegación presentada coincide con lo que reiteradamente viene solicitando el grupo municipal de BILDU. Recuerda que la base de hormigón que sustituye la zona verde según el proyecto redactado responde a criterios técnicos vinculados a la impermeabilización de las instalaciones de remo situadas bajo su superficie. El mantenimiento de la zona verde supone la necesidad de ejecutar un sistema de drenaje y aumentar la altura en unos 50 centímetros. Además de los criterios previstos en el proyecto, se han realizado consultas a otros técnicos para sondear la posibilidad de encontrar otra alternativa con menos impacto. Tras los contactos realizados ha quedado constatado que el

drainatze-sistema bat instalatu beharko litzatekeela, eta, horrez gain, idatzitako proiektua aldatu beharko litzatekeela; jakina, obren kostua igotzea ekarriko luke horrek berekin. Adierazi du eragina gutxitzeko modua aztertu dela, lore-ontziak instalatzea bezalako ordezko aukerekin. Kasu horretan zehazki, jardinerak instalatuta arrauneko instalazioen gainaldeak izan beharko lukeen zama-gaitasuna ez ezagutzearen arazoa dago.

Aztertutako beste aukera gauzagarri bat hormigoia txosna kokatzen den eremua soilik jartzea izan da, gainerako eremu zati osoa berde mantenduz eta ondorengo jardunbide baterako utziz drainatzearen beharrezko gaia. Alkateak aukera hori adabaki hutsa dela esan du, behin betiko konponbidea denboran atzeratu besterik egiten ez duena. Hirugarren aukera bat izan daiteke haur parke bat instalatzea, baina jardineren arazo berbera izango luke, hau da, arraun instalazioek duten zama-gaitasuna ez ezagutzea. Patxi Fernandezek hartu du hitza, eta jakinarazi enpresa batekin harremanetan jarri dela bera, enpresak Udalari aurkez diezaion berdegunea mantentzeko aukera ematen duen konponbide teknikoa eta horri dagokion aurrekontua.

mantenimiento de la zona verde implica la instalación de un sistema de drenaje que, además, implica la necesidad de modificar el proyecto redactado y el consiguiente aumento del coste de las obras. Comenta que se ha estudiado la forma de limitar el impacto con alternativas como la instalación de jardineras y, en este caso concreto, se plantea el problema del desconocimiento de la capacidad portante de la parte superior de las instalaciones de remo que deberían soportar la instalación de jardineras.

Otra alternativa posible estudiada ha sido hormigonar únicamente la zona de ubicación del Txiringuito manteniendo el resto de la zona verde y trasladar a una actuación posterior el tema del necesario drenaje. Esta posibilidad es definida por el Alcalde como un parche que se limita a trasladar en el tiempo la solución definitiva. Una tercera alternativa podría ser la instalación de un parque infantil pero tendría el mismo problema que las jardineras, esto es, el desconocimiento de la capacidad portante del soporte de las instalaciones de remo. Interviene Patxi Fernández informando que, por su parte, ha mantenido contactos con una empresa al objeto de que se presente al Ayuntamiento una solución técnica que permita el mantenimiento de la zona verde así como el

correspondiente presupuesto.

Horren guztiaren aurrean, Alkate jaunak esan du proiektua mantentzeko edo aldatzeko behin betiko erabakia aipatutako hiru aukeren arteko bideragarrienaren aldekoa izango dela.

A la vista de todo ello, el Sr. Alcalde afirma que la solución definitiva en orden a mantener o modificar el proyecto se adoptará a favor de la alternativa más viable entre las mencionadas.

Longarte jaunak galdetu du txosnetako pankartak zer arrazoi zehatzegatik kendu diren, eta zein den erretiratzen ez diren beste pankarta batzuekin Alkatetzak erabili duen irizpidea. Gai hori arautzen duen araudi edo ordenantzarik ba al den ere galdetu du.

El Sr. Longarte pregunta sobre la razón concreta de la retirada de las pancartas de las txoznas y el criterio utilizado por la Alcaldía en relación a otras pancartas que no se retiran. Pregunta si hay algún tipo de normativa u ordenanza que regule la materia.

Alkate jaunak erantzun dio kendu ez diren pankartak Udalari haiek kokatzeko eskaera egin ondoren kokatu zirela. Segurtasun arrazoiengatik nolanahi debekatuta dauden saihesbideko zubiaren gaineko pankartak izan ezik, egia da norbaitek horiek jartzeko aukera kontsultatu duenean erantzuna batzuetan baiezkoa izan dela, eta besteetan ezezkoa. Longarte jaunak aurkeztutako kasuan, inolako eskaerarik ez dela izan jakinarazi du. Beste alde batetik, esan du beharrezkoa dela baimenen inguruko kontrol bat izatea, kontrolik gabe ugaritzea saiheste aldera, herrian zikinkeria eta utzikeria sentsaziorik izan ez dadin. Kartel eta iragarkien bitartez egindako publizitatea mugatzeko neurriak irizpide

Responde el Sr. Alcalde que las pancartas que no han sido retiradas se colocaron tras la solicitud realizada al Ayuntamiento para su colocación. Quitando las pancartas sobre el puente de la variante que están en todo caso prohibidas por razones de seguridad, lo cierto es que cuando se ha consultado la posibilidad de colocación la respuesta ha sido en algunos casos positiva y en otros casos negativa. Informa que en el caso planteado por el Sr. Longarte no se ha presentado solicitud alguna. Por otra parte afirma que es necesario mantener un control sobre las autorizaciones para evitar su proliferación incontrolada al objeto de evitar la sensación de suciedad y abandono del pueblo. Recuerda que las medidas que limitan la

horiekin hartzen direla gogorarazi du. Azkenik, azpimarratu du berariaz adierazita eskatutako baimenak ematea edo ukatzea aipatutako irizpideen arabera egiten dela, pankarten edukia bata edo bestea izan. Gai hori arautzen duen araudirik izateari buruzko galderari erantzunez, Alkate jaunak adierazi du gune publikoak kudeatzeko eskumenaren arabera hartzen direla erabakiak.

publicidad a través de carteles y anuncios responden a los mismos criterios. Por último recalca que la concesión o denegación de las autorizaciones expresamente solicitadas responden a los criterios señalados con independencia del contenido de las pancartas. A la pregunta sobre la existencia de alguna normativa que regule el tema responde el Sr. Alcalde que las decisiones se adoptan en base a la competencia en la gestión de espacios públicos.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Alkate jaunak bukatutzat eman du bilkura hamarrak eta bost minututan, eta horren guztiaren fede eman dut nik, Idazkari bezala.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión a las diez horas y cinco minutos, de todo lo cual, como Secretario doy fe.

**O. E.**
**ALKATEA**

**IDAZKARIA**